



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



BOSEk zuzenean interpretatuko du Fritz Langen *Metropolis* filmaren musika, zientzia fikziozko zinearen ezinbesteko klasikoa proiektatzen ari den bitartean

- Bihar ostegunean, maiatzaren 31n, arratsaldeko 19:30ean eskainiko den ikuskizuna kontzertu eta zine fusioa da, eta Arriaga Antzokiak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) ekoizten dute.
- Fritz Langekin eta zine espresionista alemanarekin orokorrean harreman handia izandako Gottfried Huppertz musika-egilearen arrakasta nagusia izan zen *Metropolis*, BOSEk interpretatuko duen Jatorrizko Soinu Banda.
- Nacho de Paz maisua izango da *Metropolis* honen musika zuzendaria.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 30ean.- Arriaga Antzokia eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) eskutik arituko dira, berriro ere, denboraldiko ikuskizun berezietakoa eskaintzeko: ***Metropolis***. Duela urtebete baino pixka bat gehiago antzeko esperientziaz gozatu ahal izan genuen, *Nosferatu* ordura arte ikusi ez genuen bezala ikusiz, eta orain gauza bera egingo dugu *Metropolis* ezinbesteko filmarekin. Filmaren eragina gure egunetara arte heldu da, eta nabarmena da film askotan, *Blade Runner*ren edo *Star Wars*en, bi adibide bakarrik aipatzearren. Zine eta musika zaleentzat ezinbestekoa den hitzordua Arriaga Antzokian izango da, bihar ostegunean, maiatzaren 31n, arratsaldeko 19:30ean.

Kontzertu baten eta zine saio baten arteko fusio paregabe gisa planteatutako proposamen eszenikoak zuzeneko musika eskainiko du, zientzia fikziozko zinearen *Metropolis* (1927) lan klasikoa proiektatzen ari den bitartean. **Fritz Langen** film ezagunaren edertasuna are eta nabarmenagoa da **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** eskainiko duen interpretazioari esker. **Gottfried Huppertz**ek idatzitako Jatorrizko Soinu Banda eskainiko du, oraingoan ere, iaz bezala, **Nacho de Paz** maisuaren musika zuzendaritzarekin. Huppertz oso erlazionatuta egon zen Fritz Langekin eta zine espresionista alemanarekin orokorrean, izan ere, mugimendu horretako zenbait filmen musika idatzi zuen, *Die Nibelungen* (Fritz Langena) serie fantastikoa osatzen duten bi filmena edo *Zur Chronik von Grieshuus* (Arthur von Gerlachek zuzendutakoa) lanarena, besteak beste. Baina, inolako zalantzarik gabe, arrakasta nagusia eta aintzatespena *Metropolis* filmeko musikari esker lortu zituen.

Zientzia Fikziozko zinearen klasiko hau berez interesgarria bada, ikuskizun honetan bertsio luzea eskainiko da, 145 minutukoa, 2008an Buenos Airesen aurkitutakoa. Bi urte iraun zituen eta nazioarte osoan arreta piztu zuen zaharberitze prozesuaren ondorioz, ustez galduta zeuden eta 1927ko zinearen harribitxiaren beste ikuspegi bat sortu zuten 30 minutu eszena gehitu ziren. Izan ere, espresionismo alemanaren adierazle nagusiaz, kultuzko lanaz eta historian eragin handiena izan duen filmetako batez ari gara.

SARRERAK

- 8,50 eta 27 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Metropolis

METROPOLIS (1927)

2010ean luzatutako eta zaharberitutako bertsioa (145 min.)

Zuzendaritza: **Fritz Lang**

Musika: **Gottfried Huppertz**

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)

Musika zuzendaria: **Nacho de Paz**

Arriaga Antzokia – BOS lankidetzari esker eskainitako kontzertua

FILMPHILHARMONIC EDITION

Film by courtesy of Friedrich-Wilhelm-Murnau-Stiftung

Music by courtesy of EUROPEAN FILMPHILHARMONIC INSTITUTE.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus